

ANEXO I
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILLOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasmilako programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	ARALAR INSTITUTOA	kodea: <i>código:</i>	
etapa: <i>etapa:</i>	DBH	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	2.
arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	MUSIKA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>áreas/materias integradas</i>			
diziplina barruko oinarrizko konpetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	GIZA ETA ARTE KULTURARAKO KONPETENTZIA		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	TXUS ARANBURU	ikasturtea: <i>curso:</i>	22/23

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean* komunikatzeko konpetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. Elkarbizitzarako konpetentzia
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
5. Izaten ikasteko konpetentzia

***Informazioa, komunikazioa, edukiak sortzea**, segurtasuna eta arazoak ebaztea

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i> criterios de evaluación</i>
<ol style="list-style-type: none"> 1. Musikako euskarazko oinarrizko terminologia ezagutzea eta erabiltzea. (4.OK) 2. Sormena eta musikaltasuna garatzea, ahotsak, tresnak eta mugimendua erabiliz. (7.OK) 3. Musika mintzairan sakontzea musika obren aurrean burujabetza edukitzeko. (3-8-2 OK) 4. Orff instrumentuekin musika interpretatzen ikastea, klasikoen obrak zein gaur egungoak jorratuaz. (7-8-3-2-1 OK) 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ <u>Euskararen erabileran:</u> <ul style="list-style-type: none"> - Musikaz euskaraz aritzeko gai diren. - Irakaslearekiko harremanean eta ikasgelako jardueretan euskara erabiltzen duten. ➤ <u>Musika lengoaian:</u> <ul style="list-style-type: none"> - Partitura batean agertzen diren oinarrizko elementuak identifikatzen dituzten eta hauen esanahia ondo interpretatzen duten.

5. Gorputz perkusioa maneiatzea lateralitatea eta psikomotrizitatea lantzeko. (7-8-3-2-1 OK)

6. Musika programa errazak erabiltzea pieza batzuk asmatzeko eta grabatzeko. (5-8 OK)

7. Musikarekin eta musika-testuinguruaren lanketarekin lotutako baliabide teknologikoak erabiltzen ikastea. (5-8 OK)

8. Musika obra ezberdinak identifikatzea garai historikoarekin, estiloarekin eta erabilitako teknikekin. (7-5-4 OK)

9. Pieza bat interpretatzea zuzendariaren mugimenduak ulertuz. (7-6-3 OK)

10. Taldean jotzen ikastea eta taldekide sentitzea. (6-2-1 OK)

11. Interpretazioarekin azaleratzen diren sentimenduak elkarbanatzea. (7-6 OK)

12. Emanaldia eskaintzea, eta bertan sortzen den egoerari aurre egiteko baliabideak garatzea. (8-7-6-3-1 OK)

Helburu hauetan guztietan Oinarrizko Konpetentziak eskuratzea bilatuko da, zehaztu bezala:

1. Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzia

2. Ikasten ikasteko konpetentzia

3. Matematikarako konpetentzia

4. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia

5. Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko konpetentzia

6. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia

7. Giza eta arte-kulturarako konpetentzia

8. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia

➤ Interpretazioan:

- Bakarkakoan musika-tresna batekin edo ahotsarekin musika egiteko gai diren.

- Taldean neure interpretazioa kokatzeko gai diren.

➤ Entzuketetan:

- Musika-lanen alderdi garrantzitsuenak identifikatzen dituzten.

- Musika-lanak dagokien garaian, estiloan eta testuinguruan kokatzeko gai diren.

- Landu ditugun musika-lanak identifikatzen dituzten.

➤ Sormenean:

- Soinua esploratzen duten, baliabide bat baino gehiago aplikatuz.

- Musika lana hobetzeko ideiak ematen dituzten, hau orijinala izan dadin.

➤ Alderdi teorikoan:

- Landutako oinarrizko alderdiak ulertu eta barneratu dituzten.

- Berauek egoera berrietan aplikatzeko gai diren.

➤ IKTen erabileran:

- **Ikasleak informazioa eskuratzeko, komunikatzeko, eta edukiak sortzeko IKT baliabideak erabiltzen ditu segurtasunez eta arazoak ebatziz.**

➤ Ikasketa kooperatiboan:

- Taldean proposatutako egituretan aritzeko gai diren

- Egokitu zaien rola bete duten

➤ Jarreran:

1. ARRETA

- Irakaslearen esanei jaramon egiten dieten.

- Gelan emandako azalpenak arretaz entzuten dituzten.

- Taldearen garrantzia baloratzen duten.

- **Entzuketak eta besteen interpretazioak isilik eta arretaz entzuten dituzten.**

2. PARTEHARTZEA

- Egunean proposatu den jardueran/jardueretan aritzen diren.
- Musika-tresnak dagokidan momentuan jotzen dituzten, beren txandan, besteen interpretazioak errespetatuz.

3. LANA

- Entsaiazeko edo lanerako denboran ahalegindu eta lanean ondo aritzen diren.
- Lan kooperatiboan taldekideei laguntza eskaintzen dieten.

4. MATERIALA

- Gelako materiala egoki erabili eta zaintzen duten.
- Emandako fotokopiak zaindu eta gelara ekartzeaz arduratzen diren.

5. HARREMANAK

- Irakaslea eta ikaskideak errespetuz tratatzen dituzten.

6. PUNTUALTASUNA ETA EPEAK

- Eskatutako lanak bere epean eman dituzten.
- Klasera garaiz iristen diren.

ARAZO EGOERA [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguararen daturik errelenbanteenak agertuko dira].

SITUACIÓN PROBLEMA [Incluirá los datos relevantes del contexto, el problema y la tarea final de cada una de las situaciones.].

<ul style="list-style-type: none">1. arazo egoera / Situación problema 1
<ul style="list-style-type: none">1. arazo egoera / Situación problema 1
Arloa: Musika
Gaia: Munduko erritmoak txarangen erreperorioan
Maila: 2.DBH
Saioak: 8
Proposamenaren justifikazioa: Gure herrietako banda eta txarangentan entzuten dugun musikaren jatorri aniztasuna oso handia da. Sekuentzia di honetan, herrialde ezberdinetako erritmoen inguruko lanketa egitea proposatzen dugu, aniztasun hori ezagutu eta aberastasun hori baloratzeko. Ikasleek musika-erritmo edo genero horiek ikertu beharko dituzte, haien jatorria, eta adibideak bilatuz. Kompetentzia artistikoa Musika-arlotik garatzea da unitate honen ardatz nagusia, baina gain oinarrizko kompetentziak ere garatzen ditu, proposatzen diren zenbait jardueraren bidez.
Arazo-egoera: A. Testuingurua: Gure inguruko banda eta txarangen erreperorioak oso informazio baliotsua ematen digute munduko herrialde ezberdinetako musikak ezagutzeko. Mambo, cumbia, samba, jota, fandangoa, arin-arina, pasodoblea, rantxerak, s pop-rock... Zer dakigu hainbestetan entzun eta dantzatu ditugun erritmo hauen inguruan? B. Arazoa: Gutxi falta da ikastetxean Kultur Aniztasunaren Astea iristeko. Hainbat ekitaldi antolatu dira, horien artean "Gastr munduko janari ezberdinak dastatzeko uena, girotzeko txaranga baten laguntza izango duena. Guri txarangaren programazioan dauden munduko musika erritmoen inguruan aurkezpena egitea eskatu digute. Zeintzuk dira txara dituen musika erritmo edo genero horiek? Zer dakigu haien inguruan? Zein herrialdeetakoak dira? Zein da hauen ja iritsi dira gure txarangen erreperorioan leku bat izatera? C. Helburua Txaranga baten erreperorioan sakontzea, kultur aniztasunaren ikuspegitik.
Eginkizuna: Poster digital bat egitea eta aurkeztea, musika herrikoiaaren erritmo eta genero ezberdinekin. Haien jatorria, ebolu ikus-entzunezko elementuez gain, produkzio propioak ere eduki beharko ditu.
Oinarrizko kompetentziak: A. Zeharkakoak - Komunikatzeko kompetentzia: hitzekoa, ez hitzekoa eta digitala. - Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia - Elkarbizitzarako kompetentzia - Ekimen eta espiritu ekintzailea garatzeko kompetentzia - Izaten jakiteko kompetentzia B. Diziplina-kompetentziak - Arterako kompetentzia
Helburu didaktikoak: <ul style="list-style-type: none">Herrialde ezberdinetako musika herrikoiaaren ezaugarriak ezagutu.Sarean idatzizko eta soinuazko informazioa bilatu, aukeratu, eta proposatutako jardueretan erabili.Produkzio musikal desberdinak baloratu, haien interpretazioei dagokienez, bai eta haien erabilerei eta f dagokienez ere.Ulertu kultura desberdinek egindako ekarpenak ondare musikala aberasteko.

<ul style="list-style-type: none"> • Jatorri desberdinetako proposamen musikalak identifikatu eta aztertu, eta haiek baliatu erreferente estetiko berri modura. • Gure inguruneko eskaintza artistikoa eta kulturala ezagutu eta baloratu. • Lengoai artistiko desberdinak ezagutu eta baloratu, adierazpen kulturalako elementuak diren heinean. • Ezagutu eta erabili lengoai musikalaren berezko kodeak, musikaren sormenean, interpretazioan eta komunikazioan. • Elkarlanean eta talde-lanean ibiltzeko ohitura garatu. • Lankidetzan egindako proiektu artistiko bat planifikatu, garatu eta ebaluatu. 	
<p>Edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Konposizio musikalak entzun, modu aktiboan, eta ezagutu haien ezaugarriak: melodikoak, erritmikoak, tinbrekoak eta estrukturalak. • Musika entzuten ari den bitartean, adi eta isilik egon. • Ezagutu abestietan edo adibide musikaletan errepikatzen, kontrastatzen eta itzultzen diren esaldi musikalak eta zatiak. • Partiturak irakurri, ahotsez, instrumentuz eta gorputzez interpretatzeko (idazketa musikal konbentzionalekoak zein ez konbentzionalekoak izan). • Koordinazio eta sinkronizazio indibiduala eta kolektiboa, ahotsezko zein instrumentuzko interpretazioan. • Sentsibilitate estetikoa landu proposamen musikal berrien aurrean, haien elementu sortzaileak eta berritzaileak ezagutzuz. • Laguntzazko eta errespetuzko jarrera izan, komunikazio-trukea zein ikaskuntza partekatua lantzen diren egoeretan. • Musika herrikoi modernoaren lanekin zerikusia duten kontuak ikertu eta aztertu, hala nola: konposizioaren baten testuinguru kulturala, egilea, forma eta elementuak. • Lan-taldearekin parte hartu eta lankidetzan aritu, proiektu artistiko bat egiteko. 	
<p>Jardueren sekuentzia:</p> <p>A. Hasierako fasea:</p> <p>1. jarduera</p> <p>1.1 Aurkezpena: Txarangak Euskadin</p> <p>Txarangak dira Euskal-Herriko festetako ezinbesteko kale-animatzaileak eta herri-musikaren zabaltzaile garrantzitsuak. Dantzarako musika jo ohi dute.</p> <p>Unitate didaktiko honen bidez, ibilbide laburra egingo duzue herri musika herrikoi eta modernoan zehar, eta, hori egin ondoren, txaranga baten programazioan oinarritutako erakusketa bat egin beharko duzue.</p> <p>Horretarako, taldeka jarri (gehienez 4 lagun) eta lanak banatu.</p> <p>Unitateari ekin aurretik, gogoeta egin taldeka gai honi buruz dakizuenaz aztertzeko. Horretarako, galdera-sorta hau erantzun:</p>	
<ul style="list-style-type: none"> • Zer dakizue herri-musikari buruz? (tradizionala zein modernoa) • Ezagutzen al duzue herri-musika tradizionala edo modernoa jotzen duen talderen bat? Eta biak jotzen dituenik, alegia, txarangarik? • Euskadiko txaranga topaketaren bat ezagutzen duzue? <p>B. Garapenaren fasea:</p> <p>1.Jarduera: MUSIKA-HERRIKOI TRADIZIONALA</p> <p>Musika-herrikoi tradizionala, herri bakoitzaren folkloreaken zatia da, herri horren ezaugarri estuki lotua dagoena. Herri bakoitzak bere musika-tresnak erabiliko ditu musika hau interpretatzekoan.</p> <p>Ikusi eta entzuten dituzun tresna hauek zure ustez zein herrialdeetakoak edo kontinentekoak diren zehaztu:</p>	

MUSIKA-TRESNA	KONTINENTEA
DJENBEA	
AGOGO	
MARINBA	
KONGAK eta BONGOAK	
GAITA	
KOTOA	
DIDJERIDOO-A	
CUICA	
CHARANGO-A	
TRIKITIA	
ZINBALUM-A	
TXISTUA	

Egiazatu zure erantzunak webgune honetan: <http://www.xtec.cat/~asala4/index.htm>

2.jarduera: ERRITMO TRADIZIONALAK IKERTUZ

Hauek dira gure Gastrofestara etorriko den txarangak joko dituen musika-erritmo edo generoak, herri-musikari dagokionez. Binaka jarrita, ikertu interneten hauetako biren jatorria, ezaugarriak eta bilatu bakoitzaren bideo bat. Hasi GLOGSTER-ekin hormirudi interaktiboa egiten:

MAMBO
SAMBA
CUMBIA
JOTA
FANDANGO
ARIN-ARINA
HABANERA
PASODOBLEA
CHA-CHA-CHA
RANTXERA
BALSA

3.jarduera: ERRITMOAK INTERPRETATZEN 1

Interpretatu ondorengo erritmoak, musikarekin batera, gelako musika-tresnak erabilia:
SAMBA, CUMBIA, CHA-CHA-CHA, HABANERA eta BALSA

4.jarduera: MUSIKA-HERRIKOI MODERNOA

Musika-herrikoi modernoaren estiloak oso ugariak dira eta ziur asko ezagutzen dituzula.

Zehaztu zein hurrenkeran entzuten dituzun honakoak eta baldin badakizu, musikaria nor den ere bai:

HURR.	MUSIKA-ESTILOA	MUSIKARI EDO TALDEA
	ROCK-A	
	POP-A	
	HEAVY METALA	
	SKA	
	REGGAE-A	
	DISKO-A	

5. Jarduera: THE BEATLES

The Beatles 60.hamarkadan Ingalaterran sortutako lau kide-tako rock-pop taldea da: John Lennon, Paul McCartney, George Harrison eta Ringo Star-ek osatzen zuten.

a) Entzun "Obla-di Obla-da" abestia eta erantzun ondorengo galderak:

- Zein tinbre desberdin identifikatu dituzu? (musika-tresnak, ahotsak, bestelakoak...)
- Zer iruditu zaizue abestia?
- Ez al zaizu berezia egin haize-metalezko tresnaren erabilera musika-estilo honetan?
- Ezagutzen al dituzue The Beatles taldearen beste kanta batzuk? Zein?

b) Adierazi hizki larriz abestiaren egitura. Bi gai nagusi daude, interludio batekin tartekatuta.


		C interld			C interld			
--	--	-----------	--	--	-----------	--	--	--

c) Interpretatu abestiarekin batera zati bakoitzari dagokion erritmoa.

6.jarduera: ROCKA-REN SORRERA

Ikusi rockaren inguruko bideo zati laburra eta erantzun:

- Non eta zein hamarkadatan sortu zen rock and rolla?
- Zeintzuk sortu zuten rock and rolla eta zerk mugitu zituen horretara?
- Zer gertatu zen munduan urte batzuk lehenago?
- Nork egin zuen ikaragarri ezagun rock and rolla, masa fenomenoa sortuz?
- Beste bi rock taldez ere hitz egiten da bideoan; zeintzuk?
- Rock and rollak zein **lau eraginetatik** edan zuen?



7.Jarduera: ESTILO MODERNO EZBERDINAK

1950ean, Estatu Batuetan, sustrai afroamerikarrekin eta jazzean oinarrituta sortu zen musika-herrikoi modernoak, rock and roll-arekin. Horren ondoren, estilo ezberdinak sortu ziren, ezaugarri komunak mantenduz.

a) Banatu bikoteka musika-estilo hauek, bakoitzak bi egiteko:

ROCK AND ROLLA, ROCK-A, POP-A, HEAVY METALA, PUNKA, SKA, REGGAE-A, RAP-A, HIP-HOPA, ELEKTRONIKOA, SOUL-A, PSIKODELIA, DISKO

b) Glogster erabiliz, egizue estilo horien inguruan ondorengoak:

- deskribapen laburra
- ordezkari nagusiak, biografia-diskografia laburrekin
- estilo horretako musikaren bideo bat, musikari edo taldearen izenarekin

8.Jarduera: ERRITMOAK INTERPRETATZEN 2

Interpretatu ondorengo erritmoak, musika entzuten duzun bitartean, gelako musika-tresnak erabiliz:

POP-ROCK

SKA

REGGAE

DISKO

9.Jarduera: INTERPRETATZEN

6.1. Entzun ABBA taldearen "Mamma mia" abestia, "disko" generoaren adibide bezala.

6.2. Interpretatu partitura taldean.

10.Jarduera: POP-ROCK PIEZA SORTZEN

6ko taldeetan jarrita, pop-rock pieza sortuko duzu. Bi taldek **laguntza erritmikoa** eta beste bik **doinua** asmatuko duzue. Sormen lanak taldean **jo eta grabatuko dituzue**, bukatutako produktu bihurtzeko.

a) Laguntza erritmikoa:

The Beatles taldearen *Hey Jude* abestia hartuta, 3-4 musika-tresnatarako laguntza poliritmikoa asmatu, 2 konpaseko ostinatoa osatuz.

A zatiarentzako eta **B** zatiarentzako erritmoak ezberdinak izan behar dira.

Konpas bateko ostinatoa izan behar du KODA zatirako.

Jotzerakoan \parallel : A x 4 | B x 6 : \parallel + KODA x 8

b) Doinua:

Teklatuaren erritmo kaxa 100ean piztuta edo emandako erritmoak lagun dituzula, asmatu zuen doinua, "Hey Jude" abestiaren doinu orijinalaren erritmoari soinua jarrita.

- Bakoitzak 4 konpas egin behar ditu, denen artean partitura osatzeko.
- KODA lehenik bukatzen duenak egingo du.
- Konbinatu hurrenez hurreneko notak eta saltoak ere, eskala bateko tartean:

DO-tik DO-ra.

11.Jarduera: SORMEN LAN OSOA

Unitatean landutako erritmoak oinarri hartuta, sortu zuen musika-lan melodiko-erritmikoa.

- Erritmoez gain, ahotsa, tresna-melodikoak eta edozein objeturekin sortutako hotsak erabil
- ditzakezue, modu askean.
- Emaiozue forma garbia lanari (AABB, ABAB, ABAC...)
- Interpretatu eta grabatu zuen lana.

12. Jarduera: TXARANGEN TOPAKETAK

Ikertu Euskal-herriko eta Espainiako Txarangen Topaketen inguruan. Bakoitzarentzat bete ondorengo galdetegia:

- Txaranga Topaketaren izena:
- Noiz eta non ospatzen da?
- Zein txaranga bildu zituen azken edizioan?
- Zein erreperitorio jotzen dute?

C. Aplikazio eta komunikazioaren fasea:

13. jarduera: HORMIRUDI DIGITALA PRESTATUZ

Herri-musika tradizionalaren eta modernoaren oinarriak errepasatu dituzue jada. Hainbat genero edo erritmo landu dituzue eta horiekin sormen-lana egin ere. Horrez gain, herri-musikaren zenbait interprete eta pieza ospetsu ezagutzen dituzue. Orain, lanketa horrekin guztiarekin 2 hormirudi digital interaktibo osatu behar dituzue, munduko mapa baten irudiaren gainean (gela erdiak herri-musika tradizionala, eta beste erdiak, modernoa). Bikote ezberdinek informazioa batu beharko duzue. Kontuan hartu agertu behar diren elementuak:

- ◆ Herri-musika tradizionalaren edo modernoaren ezaugarriak (egokitu zaizuen).
- ◆ Landutako genero edo erritmoen ezaugarriak jatorrizko herrialdeari loturik, ordezkari nagusien biografia-diskografia laburra, erritmo hutsaren audioa eta interesgarrien iruditu zaizkizuen interpretazioen bideoak.
- ◆ Zuen sormen lanak, audioan.
- ◆ Txarangen topaketen informazioa eta hauetako baten bideoa.
- ◆ Aurkezpenari lagunduko dioten irudiak.

10. jarduera: HORMIRUDIA AURKEZTUZ

Zuen hormirudi digitala Gastrofesta ospatuko den eguna baino egun batzuk lehenago aurkeztuko duzue taldean eta hortik aurrera, arbela digitalean ikusgai egongo da ikastetxeko gainerako taldeentzat. Aurkezpena amaituta, zuen ikaskideen balorazioa jaso behar duzue.

PROIEKTUA BALORATZEKO GALDETEGIA	
Eman 0 eta 10 arteko puntuazioa, kontu hauek neurtzeko: (0= batere ez/10= dena)	
Elementuen antolaketa egokia eta erakargarria iruditzen zait.	
Entzuteko edo ikusteko aukeratutako obrak interesagarriak iruditzen zaizkit.	
Jazzaldiaren iraupena eta kokapena egokiak iruditzen zaizkit.	
Argiak eta zehatzak iruditzen zaizkit genero eta ordezkari buruzko adierazpenak.	
Genero ezberdinen inguruko sormen-lanak interesagarriak iruditzen zaizkit.	
Aurkezpen argia, erakargarria eta atsegina izan da.	
Oro har, honelakoa izan da proiektuaren aurkezpena:	

D. Orokortzea eta transferentzia:

11. jarduera: Ikasitakoa helarazi.

Aurkezpenaren arrakasta kontuan hartuta, beste antzeko bat egitea proposatu dizuete, baina oraingoan ikastetxean ospatuko den Euskal Asterako. Gaur egungo euskal musika eta estilo horretako musikaririk esanguratsuenak izango dira zuen lanaren ardatzak.

12. Jarduera: LANDUTAKO BERRIKUSI

Unitate osoan egin duzun lanaren **autoebaluazioa** egiteko ordua iritsi da. Garrantzitsuena da zeuek jabetzea ikasi duzuenaz. Horrela, zeuen akatsak zuzentzeaz gain, zeuen lorpenak hobetu ahalko dituzue.

	Beti	Gehienetan	Noizbehinka	Gutxitan	
Arduraz hartu dut parte.					
Azaldutako denboran egin ditut lanak.					
Besteak beste, neure ideiak eta kontsulta iturriak ekarri dizkiot taldeari.					
Lan-materialak zaindu ditut.					
Ikaskideen lana entzun eta baloratu egin dut.					

Ebaluazioa:

A. Adierazleak:

- Baliabide desberdinak erabiltzen ditu lan musikal bat interpretatzeko edo berregiteko.
- Baliabideak jartzen ditu, taldeari ekarpen bat egiteaz gain, eraikitze pertsonalaren faktorea izan dadin.
- Lan musikal baten ezaugarri garrantzitsuak antzematen ditu, bai eta teknikak eta estilo desberdinak ere.
- Behar duen material musikala behar bezala aukeratzen du, uneko premien arabera.
- Egokiro prozesatzen ditu gaiari buruz dakiena, proiektu musikal bat egiteko.
- Eraginkortasunez erabiltzen ditu informazio- eta komunikazioteknologiak, emandako iturrien bidez informazioa lortzeko.
- Bere inguruneko eskaintza artistiko eta kulturalerako interesa erakusten du.
- Bere lan artistikoa aztertzen du, eta hobetzen saiatzen da.
- Lan-taldearen garrantzia baloratzen du.
- Azken helburuei erantzuteko moduan antolatzen du bere lanaren erakustaldia.

B. Tresnak:

- Entzunaldietarako audioak eta bideoak
- Interneta informazio iturri bezala
- Glogster programa, hormirudia egiteko
- Partiturak
- Ordenagailuak
- Entzuketan inguruko galdetegiak
- Ebaluazio galdetegiak

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

1.ebaluazioa	2.ebaluazioa	3.ebaluazioa
<p>1. Garai eta estilo ezberdineteko musiken entzuketa aktiboak</p> <p>2. Musika-moldeak</p> <p>3. Erritmoa, doinua, harmonia eta testura</p> <p>4. Partituren edizioa</p> <p>5. Gorputz perkusioaren eta ukele bidezko interpretazioa</p> <p>6. Musika-sorkuntza</p>	<p>1. Euskal-Herriko musika-tresnak</p> <p>2. Herri-musika ezberdinen entzuketa aktiboak</p> <p>3. Pieza desberdinen intrepretazioa</p> <p>4. Musika-sorkuntza</p> <p>5. Gorputz perkusioaren eta ukele bidezko interpretazioa</p>	<p>1. Euskal kantagintza berria: “Ez dok amairu”ti gaur arte.</p> <p>2. Musika-estilo desberdinen entzuketak euskal musikan</p> <p>3. Gorputz perkusioaren eta ukele bidezko interpretazioa</p>
10 saio	10 saio	11 saio
Baliabide digitalak: Chord-chord, soundation, songmaker	Baliabide digitalak: Moodle, soundation, songmaker	Baliabide digitalak: Moodle, Xmind, Audacity
<p>Hiru ebaluazioetan landuko dira hiru eduki-multzoak: “Entzumena eta musika- erreferenteak”, “Musikaren praktika” eta “Musika eta teknologiak”</p>		

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Metodologia lantzen ari garen gaiaren araberakoa izango da:

☒ Musika lengoia:

1. Irakasleak azalpenak emango ditu eta ikasleek ariketak egin, ondoren (erritmikoak, melodikoak...).

Imitazio bidezko lanketa ere egingo da, ondoren egindakoaren ulermenera joaz.

2. Aniztasuna oso handia izaten da eduki honetan, ikasle batzuk musika ikasten baitute eskolaz kanpo. Ikasle hauei euren ezagupenen araberako ariketak emango zaizkie, eta talde lanean ere arituko dira ez dakitenei laguntzeko.

☒ Interpretazioa eta sormena: bakarka, talde txikian eta handian.

☒☒ Garai ezberdinetako musikak: batzuetan, hauek dagokien testuinguruan kokatu eta entzuketara aktiboak proposatuko dira, galdera eta jarduera batzuen laguntzarekin; gero guztion artean komentatuko dira. Beste batzuetan, ikasleek proposatu eta kokatuko dituzte entzuketok dagokien testuinguruan, ikerketa-lan txiki bat egin ondoren.

☒☒ Atal teorikoan: Zenbaitetan, irakasleak apunteak banatu, gelan aurkeztu eta ariketak (interaktiboak zein paperean) guztion artean egingo ditugu. Beste batzuetan, ordenagailuak erabiliko ditugu hauek banaka edo binaka lantzeko oso bideratutako zereginetan, baliabide teknologikoak erabiliz (ikerketa eta sintesi lanak, ariketa interaktiboak...).

Ebaluaketa batean ordenagailuan egindako lan bat gelan ahoz aurkeztuko dute.

Musika-gela erabiliko da nagusiki, baina ordenagailuak behar ditugunean, gela arrunta ere bai.

Ikastetxeko informatika sarea eta Moodle erabiliko dugu ikus-entzunezko baliabideak eta gelan landutakoa euskarri digitalean eskaintzeko, ariketa interaktiboak egiteko, lanak emateko, arloaren inguruan irakaslearekin edo-eta ikaskideekin komunikatu ahal izateko eta gaien gehiago sakontzeko bideak emateko.

Ikasketa kooperatiboa jorratuko dugu ondorengoak lantzeko:

1. Pieza baten sormena (Folio birakaria)
2. Erritmoen lanketa (Zenbakia)
3. Arlo teorikoa (Hiru minutuko geldialdia / 1-2-4)
4. Pieza baten prestaketa (Buru-hausgarria)

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-irizpide bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada criterio de evaluación].</p>
<p>Ebaluazioa burutzeko ondorengoak hartuko dira kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ariketa orriak edo lanak (ulermenean) - Gelako lan praktikoa (ekoizpenean) - Ebaluazioan zehar burututako proba ezberdinak (ekoizpenean eta ulermenean) - Jarrera (gaiarekiko, klasearekiko, materialarekiko, irakaslearekiko eta ikaskideekiko) - Euskararen erabilera gelan 	<p>Ebaluazioan portzentaiok erabiliko dira, ebaluaketaren edukien arabera malgutasunez erabiliko direlarik:</p> <p>JARDUERAK %40 PRAKTIKA INSTRUMENTALA %40 KLASEKO JARRERA%20</p> <p><u>AZKEN NOTA</u>: hiru edukien balorazioa izango da.</p> <p>Zatikako noten batuketa egin ahal izateko, ezinbestekoa izango da hiru atal horietako bakoitzean gutxienekoak lortzea. <u>Euskararen erabilera</u> ere ezinbestekoa izango da aipatutako hiru ataletan.</p>

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].

CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].

Ebaluazioa jarraia da **ekoizpena** eta **jarrerari** dagokionez, eta ez dugu berreskurapen sistema zehatzik aurreikusten alderdi horietan. **Ulermenaren** atala berreskuratzeko modua irakasle eta ikaslearen artean adostuko da ebaluazioa bukatu bezain laster.

Aurreko ikasturtea gainditu gabe dutenek edo ikasturtea gainditu gabe amaitzen dutenek landu denaren araberako lan teoriko-praktikoa egin beharko dute arloa berreskuratzeko.

Covid dela eta, ikaslearen konfinamenduari jarraipena emango zaio, ahal den neurrian egunerokotasunean bat eginez klaseko egunerokotasunari.

Horretarako meet. Baliabideak erabiliko dira, komunikazioa galdu ez dadin.

Helburua	Ebaluazio irizpideak	Lorpen-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
1	1	<p>➤ <u>Aintzinako musikak</u>: batzuetan, hauek dagokien testuinguruan kokatu eta entzuketara aktiboak egin dira</p> <p>➤ <u>Atal teorikoan</u>: Zenbaitetan, irakasleak teoria azaldu eta ikasleak apunteak hartu dituzte gelan, teoria hori sakontzeko murgildu dira lan sakon bat egiten hiruhilabetetan zehar.</p> <p>Beste batzuetan, ordenagailuak erabili ditugu hauek banaka edo binaka lantzeko oso bideratutako zereginetan, baliabide teknologikoak erabiliz (ikerketara eta sintesi lanak, ...).</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ariketa orriak edo lanak (ulermenean) - Gelako lan praktikoa (ekoizpenean) - Ebaluazioan zehar burututako proba ezberdinak (ekoizpenean eta ulermenean) - Jarrera (gaiarekiko, klasearekiko, materialarekiko, irakaslearekiko eta ikaskideekiko) - Euskararen erabilera gelan - Ikasle eta irakaslearekiko jarrera: errespetoa. <p>Ebaluazioan ateratako nota eta nota berriaren batez bestekoa egingo da.</p> <p>Jarduerak %40 Praktika instrumentala %40 Klaseko jarrera %20</p>